



Imagina dezagun momentu batez odol malko batek maite dugun pertsona baten aurpegia zeharkatzen duela. Zer adierazi dezake malko gorri horrek? Maitasunaren adierazgarri izan daiteke? Edo gorroto sakonenaren islada? Agian gorrotoaren eta maitasunaren uztartzean datza erantzuna. Dena dela, Neü taldeari dagokio zuzena den erantzuna bilatzea, horregatik "Maite gorroto zatitua" izenpean kaleratu dute disko berri hau.

Rocka eta metalaren uztarketaren ondorioz sortu da Neü-ren musika. Estilo indartsu eta bizi honekin aurkeztzen dute haien lehendabiziko lan hau Baga-Bigaren eskutik, gero zuzenekoetan bizitasun eta indar horiek era handiago batean transmititzeko.

Indarkeria, gizartea, etorkinak, ludopatía, drogak, maitasuna, sexismoa, dira besteak beste hitzekin transmititu nahi izan dizkiguten gaiak. Edonor sentitu daiteke identifikatua hitzen mamiarekin, gure errealitate sozialean gertu dauzkagun kasuak aipatzen bai dizkigute.

Ibilbide luzeko taldea dugu Neü. 2001.urtean sortu zen eta arrez geroztik lan dinamika handi batean murgilduta egon dira disko hau kaleratu arte. Talde guztiak bezala haiek ere hainbat gorabera bizi behar izan dituzte taldekideei dagokionez, baina gaur egun sendotasuna lortu dute boskote bezala. Bi maketa grabatu ostean eta hainbat lehiaketetan parte hartu eta gero, 2006an Euskadi Gazteko maketa lehiaketaren finalistak suertatzen dira. Ibilbide luze honek taldearen sendotasuna eta esperientzia agerian usten du zalantza barik.

Disko hau 2006ko Abenduan grabatua, nahastua eta masterizatua izan da Fidelenea estudioan, Mikel Kazalisen gidaritzapean.

Ander: Ahots nagusia / **Kike:** Gitarra / **Mutio:** Gitarra
Ibai: Baxua / **Andoni:** Bateria



baga-biga musika ideiak
221 Posta Kutxa - Mungia 48100 Bizkaia
tel. 618 072 076 / 026
info@baga-biga.com www.baga-biga.com